

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A


Bizikletaren eguna

BASILEA (SUITZA), 1938. Aza-roaren 16an, Albert Hofmann suitzar kimikari kontserbado-reak azido lisergiko dietilamida sintetizatzea lortu zuen lehenengoz, Sandoz laborategietan.

Zekale-ainoaren ergolina taldeko alkaloideak sendagai moduan erabili ote zitezkeen ikertzen ari zen. Berak sintetizatutako azido lisergikoaren 25. eratorria zenez LSD-25 izena ipini zion. Analeptiko gisa eta zirkulazio eta arnas sistemen estimulatzaile gisa erabil zitekeela uste zuen. Baina animaliekin egindako frogak ez zuten emaitza positiborik izan eta lan ildo hori baztertzea erabaki zuen.

1943an, bere esanetan “bihozkada bitxi” batek jota, konposatuarekin berriro lanean hasia erabaki zuen. LSD-25 berriro sintetizatzen ari zela, ondoezik sentitu eta etxera joan zen. “Ezinegona eta zorabioa” sentitu zituen. Gero, ohean, “mozkorraldi modukoa, atseгина, irudimenaren estimulazio ikaragarria”. Irudi fantastikoak ikusi zituen, ezohiko formak, kolore bizi eta kaleidoskopikoz beteak. LSDa Hofmannen eskuetako azalarekin kontaktuan egotearen efektuak ziren.

Hiru egun geroago, dosi handiagoa hartzea erabaki zuen, efektuak hobeto aztertzeko. 1943ko apirilaren 19an izan zen; gerora “bizikletaren eguna” esango zioten data horri.



Alex Grey-ren *St. Albert and the LSD Revelation Revolution* lana. Erretratu honetan, artistak Albert Hofmann LSDaren asmatzailearen irudia eta droga horren efektua uztartu zituen.

Hofmann doktoreak 250 mikrogramoko dosia hartu zuen, alkaloide ergotikoen ohiko dosia baitzen. Baina kantitate izugarria zen, eta kimikaria berehala jabetu zen horretaz: garai hartan ezagutzen zen ia edozein substantzia baino askoz indartsuagoa zen. Ezin zuen atzera egin ordea.

Gerra garaiko murrizketak zirela eta, ez zuen autorik eskura eta bizikletaz joan zen etxera. Dena distorsionatuta ikusten zuen eta, pedalei eraginda ere, mugitzen ez zela uste zuen. Etxera iristean ikara bizia sentitu zuen, deabrua barnean zuela uste zuen, bizilaguna sorgina zela, eta

etxeko altzariek mehatxatzen zutela. Ohera sartu eta panikoa plazer bilakatu zen. Koloreen eta forma eztanda etengabea ikusi zuen, eta soinuak ere irudi bilakatu ziren haren baitan. Azkenik, loak hartu zuen. Biharamunean, burua argi zuela eta indarberrituta esnatu zen.

Huraxe izan zen lehen LSD “bidaia”. Gero esperimentu zientifikoak egin ziren; 60ko hamarkadan laborategietatik San Franciscoko kaleetara iritsi zen; Haight Ashburytik mundu osora zabaldu zen aurrerago, eta hippyen droga kuttun bihurtu zen; debekua, zigorrak eta osasunarentzako guztiz kaltegarria zela zioten azterketak etorri ziren azkenik, eta LSDaren urrezko aroa amaitu zen.

Albert Hofmann duela hilabete gutxi hil zen, 2008ko apirilaren 29an, 102 urte zituela.

Arrastoak



Suaren bila (1981) filmeko irudia.

790.000 urte, gutxienez, sua pizten

NIRA ALPERSON-ALFIL Jerusaleme-ko Unibertsitateko arkeologoak Jordan ibaiaren haraneko Gesher Benot Yaaqov aztarnategian aurkitutako arrasto kixkaliak aztertu eta gizakiek duela 790.000 sua egiten zutela ondorioztatu du. Garai hartan sua batetik bestera eramateko

eta kontrolatzeko gai zirela argitaratu zen 2004an, baina orain sua sortzeko gai ere bazirela frogatu ahal izan dute. Dena den, oraindik ez dakite zer teknika erabili zuten.

Sua pizteko ahalmenak eragin izugarria izan zuen gizakiengan, Asiarantz migratzea ahalbidetu baitzien.